



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dosier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailak 14

Vitoria-Gasteiz, 14 de julio de 2020

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

GOBERNU KONTSEILUAK ESPAINIAKO GOBERNUAREKIN ADOSTUTAKO AZKEN HIRU TRANSFERENTZIEN DEKRETUAK ONARTU DITU

- Joan den ekainaren 25eko *Transferentzien Batzorde Mistoan* adostutako EEEn eraginpean dauden pertsonentzako ohiko erretiroaren aurretiko laguntzak, produktu farmazeutikoei buruzko legeriaren betearazpena eta eskola-aseguruaren osasun-prestazioak dira
- Dekretuak, bihar, uztailak 16, jarriko dira indarrean, EHAAn eta BOEn argitaratu ondoren

Gobernu Kontseiluak gaur onartu ditu Euskadiri eskualdatutako eta Gernikako Estatutuan jasotako azken hiru transferentziak jasotzen dituzten hiru dekretuak: Kaleratze kolektiboko espedienteen eraginpean dauden langileentzako ohiko erretiroaren aurretiko laguntzak, produktu farmazeutikoei buruzko legeriaren betearazpena eta eskola-aseguruaren osasun-prestazioak. Hiru transferentzia horiek ekainaren 25ean bideokonferentzia bidez egindako [*Transferentzien Batzorde Mistoan*](#) adostu ziren. Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren arteko akordioaren arabera, hiru transferentziak 7,5 milioi euroan baloratu dituzte; haietatik, aurrerantzean, Euskadik Kupotik % 6,24 deskontatuko du, urtero.

Dekretuak bihar, asteazkena, sartuko dira indarrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren. Hiru dekretuak bihar argitaratuko dituzten BOEn ere, Ministroen Kontseuluak gaur onartu ostean.

EEE-REN ERAGINPEKO ERRETIROAREN AURRETIKO LAGUNTZAK

Akordioaren bidez, **kaleratze kolektiboaren espedienteen eraginpean dauden langileei erretiro arruntaren aurretiko laguntzak kudeatzeko** funtzio eta zerbitzuak eskualdatzen zaizkio Euskadiri. EEEn eraginpean geratzen direnentzako laguntzak dira: kausa ekonomikoetan, teknikoetan, antolamendukoetan eta ekoizpenekoetan oinarritzen diren lan-harremanen iraungipen-prozesu kolektiboak dira, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartutako kaleratze kolektiboaren espediente-prozesuen ondoriozkoak. Helburua da erretiroa hartzeko adinetik hurbil dauden langileei babes ekonomikoa ematea, gizarte- eta lan-arloan premiazkoak eta beharrezkoak diren egoerei erantzuteko; hala, arindu egin nahi dira jarduerak erabat edo zati batean etetea ekar dezaketen enpresen berregituraketa-prozesuen ondoriozko gizarte-ondorioak, edo enpleguari eusten lagundu nahi da (*3/2014 Errege Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Enpresak berregituratzeko prozesuek eragiten dieten langileei Gizarte Segurantzaren sisteman ohiko erretiroa hartu aurreko laguntzak emateko arau bereziak ezartzen dituena*).

Aurrerantzean, Euskadik kudeatuko ditu laguntza horiek, eta hark koordinatuko ditu datuak Espainiako Gobernuarekin, ezagutzako eta estatistikako ondorioetarako. Bi gobernuek transferentzia hau 4.451.051,97 euroan baloratu dute; haietatik, Euskadik Kupotik 6,24% deskontatuko du, urtero.

ESKOLA-ASEGURUA

Akordioaren bidez, **eskola-aseguruaren osasun-prestazioen kudeaketari atxikitako baliabideak eskualdatzen zaizkio Euskadiri**. Aseguru hori derrigorrezkoa da ikasle guztientzat, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik aurrera edo Batxilergoko mailetan eta 28 urtera arte, gehienez. Helburua da haien babesa eta laguntza zaintzea ustekabeko eta aurreikusteko moduko egoeretan; istripuen eta gaixotasunen ondoriozko prestazioak aurreikusten dira. Akordioak dakarrenaren arabera, osasun-laguntzaren alderdia eskualdatzen da: medikoa eta farmazeutikoa.

Transferentzia horren finantzaketa dela eta, mistoa izango da. Alde batetik, bi gobernuek transferentzia hori 3.036.480 euroan baloratu dute; haietatik, Euskadik Kupotik % 6,24 deskontatuko du, urtero.

Baina, gainera, Espainiako Gobernuak ikasle bakoitzak ikasturtearen matrikularekin batera ordaintzen duen eskola-aseguruaren inguruan Euskadin egiten den bilketa osoaren % 96ko transferentzia egingo dio urtero Eusko Jaurlaritzari. Bi gobernuek uste dute zenbateko horren % 96 aseguruari lotuta doakion osasun-prestazioaren gastuaren zatiari dagokiona dela; hurrengo negoziazio baterako utzi dute bilketaren gainerako % 4a, zeina Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak kudeatzen jarraituko duen aseguru horren prestazio ekonomikoei lotuta baitoa.

PRODUKTU FARMAZEUTIKOAK

Akordioaren bidez, Euskadiri **produktu farmazeutikoei buruzko legeria betearazteko** funtzio eta zerbitzuak eskualdatzen zaizkio. Horrela, aurrerantzean, Euskadik honako ardura hauek izango ditu:

- ✓ Jendearentzako osasun-produktuen publizitate-mezuak kontrolatzea.
- ✓ Osasun-profesionalei zuzendutako giza erabilerako medikamentuen publizitateari buruzko jakinarazpenak ebaluatu eta kontrolatzea, Euskadin egoitza soziala duten laborategi farmazeutikoek zabaltzeko unean.
- ✓ Giza erabilerarako medikamentuen zaintza farmakologikoko eginkizunetan elkarlanean jardutea, produktu farmazeutikoei buruzko legerian ezarritakoarekin bat etorriz, eta zaintza farmakologikoko jardunbide egokiak betetzen direla egiaztatzeko ikuskapenak egitea.
- ✓ Medikamentuen kalitate-kontrolako programak egitea.
- ✓ Produktu farmazeutikoen arloan duen zehapen-ahala gauzatzea, bere eskumenen eremuan.
- ✓ Ikuskapen-jarduketan ondoren aplikagarria den araudian aurreikusten diren kautela-neurriak hartzea.

- ✓ Laborategiko jardunbide egokien ikuskapenak egitea, segurtasuneko saiakuntza ez-klinikoen arloan, bai eta jardunbide kliniko egokiaren ikuskapenak egitea ere.
- ✓ Ikuskapenen bidez, printzipio aktiboen fabrikatzaileek, inportatzaileek eta banatzaileek beren jarduerak fabrikazio zuzeneko arauekin eta printzipio aktiboak banatzeko jardunbide egokiekin bat etorritik egiten dituztela egiaztatzea.
- ✓ Legeriak autonomia-erkidegoei produktu farmazeutikoen, kosmetikoen eta higiene pertsonalerako produktuen inguruan esleitzen dizkien beste funtzio betearazle batzuk.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK 65 MILIOI EURO BIDERATU DITU EMAITEK PLUS PROGRAMARA

- **Emaitek Plus Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako zentro teknologikoei eta ikerkuntza kooperatiborako zentroeiei zuzentzen zaie**
- **Finantzaketa esleitzeko, haien jardueraren emaitzak ebaluatu eta aztertzen dira, maila globalean**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak eskatuta, Emaitek Plus 2020 laguntzen baimena onetsi du. Emaitek Plus Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako zentro teknologiko multifokalizatuen eta ikerkuntza kooperatiborako zentrozen jarduera ez-ekonomikoa bultzatzeko urteko programa da.

Itzulgarriak ez diren eta norgehiagoka araubidearen arabera dirulaguntzen programa horren **erakunde onuradunak** Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agenteak dira, ikerkuntza kooperatiborako zentrozen eta zentro teknologiko multifokalizatuen kategorian egiaztatuak.

Bideratuko den kopuru osoa (65 milioi euro) bi zenbategotan banatuko da:

- 1) Zentro teknologiko multifokalizatuentzat, 48.750.000,00 euro. Kopuru hori honela banatzen da:
 - Emaitzetara bideratutako zentroaren eredurako egokitzapen-maila: 47.288.000,00 euro.
 - Zentroek 2020rako ezarritako adierazleen aginte-taularen helburuak betetzeko dituzten jarduketa-planak: 1.462.000,00 euro.
- 2) Ikerkuntza kooperatiborako zentroentzat, 16.250.000,00 euro. Kopuru hori honela banatzen da:
 - Emaitzetara bideratutako zentroaren eredurako egokitzapen-maila: 15.763.000,00 euro.
 - Zentroek 2020rako ezarritako adierazleen aginte-taularen helburuak betetzeko dituzten jarduketa-planak: 487.000,00 euro.

Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da, eta irailaren 10eko 12:00etan amaituko da.

Eskabidera jotzeko eta hura betetzeko, egoitza elektronikoa baino ezingo da erabili.

<https://www.euskadi.eus/servicios/1007807/> (gaztelaniaz)

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1007807/> (euskaraz)

Emaitzen bilakaera positiboa

Emaitak Plusek finantzaketa esleitzeko bere onuradunen jardueraren emaitzak ebaluatu eta aztertzen ditu.

Programaren emaitzen bilakaeraren analisiak erakusten du zentro teknologikoen batez besteko betetze-mailak gora egin duela: 2015ean 80,19koa zen eta 2019an, 89,55koa. Alegia, 9 puntu hobetu da, nahiz eta deialdi bakoitzean betetze-maila handiagoa eskatu den. Ikerkuntza kooperatiborako zentroak direla eta, batez besteko betetze-maila 2015ean 63,47koa izan zen eta 2019an, 82,76koa; alegia, 19 puntu egin du hobera, nahiz eta areagotu den deialdi bakoitzean eskatutako xedea.

Eskaintza teknologikoa eratzen duten zentroyen zientzia- eta ikerketa-jardueraren emaitzak hobetzeko helburu horrek zeharka eragiten du, modu positiboan, beren I+G zerbitzuen hartzaille diren enpresen egituran (eskari teknologikoa), eta ez dakar inolako administrazio-karga gehigarririk enpresen sorreran.

Emaitak Plus 2020ren zenbatekoaren banaketa

PROGRAMA	2020	2021	GUZTIRA
5413 teknologia.	45.500.000	19.500.000	65.000.000
GUZTIRA	45.500.000	19.500.000	65.000.000

Bi esleipen-prozeduren bi agente-kategorien arteko dirulaguntzan aurreikusten den banaketaren arabera, 2020ko deialdirako aurrekontuaren banaketa honela geratuko litzateke:

PARTIDAK	2020	2021	GUZTIRA
5413 teknologia. Ikerkuntza kooperatiborako zentroyen jarduketa-planak	340.900,00	146.100,00	487.000,00
5413 teknologia. Zentro teknologikoen jarduketa-planak	1.023.400,00	438.600,00	1.462.000,00
5413 teknologia. Ikerkuntza kooperatiborako zentroyen betearazpen-maila	11.034.100,00	4.728.900,00	15.763.000,00
5413 teknologia. Zentro teknologikoen betearazpen-maila	33.101.600,00	14.186.400,00	47.288.000,00
	45.500.000,00	19.500.000,00	65.000.000,00

GUZTIRA

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

ARRIALDI-PROZEDURA BIDEZ VERTER RECYCLING-EN ZABORTEGIAN EGINDAKO KONTRATAZIOEN JAKINARAZPENA

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburu Iñaki Arriolak Gobernu Kontseiluari, apirilaren amaieratik uztailaren hasierara arte, Zaldibarko Verter Recycling enpresaren zabortegian larrialdi-prozedura bidez egindako kontratazioen berri eman dio. Jakinarazpen horren bitartez, larrialdi baten ondorioz kontratazio zuzenak egiteko 2017ko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 120. artikuluan ezarritakoa betetzen da.

Zabortegian gertatu zen lur-irristatzearen ondorioz, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, modu subsidiarioan, bere gain hartu zituen premiazko lanen zuzendaritza, kontratazioa eta egikaritzea. Lan horien bidez, zabortegiaren egonkortasuna bermatuko zen, ingurunerako eta ingurumenerako arriskua murriztuko zen eta desagertuta dauden Alberto Sololuze eta Joaquín Beltrán langileen bilaketa modu seguruan egin ahal izango zen.

Apirilaren amaieratik uztailaren hasierara arte kontratatutako jarduketa guztien zenbatekoa 4.466.707 eurokoa (BEZ barne) izan da. Partida nagusia — 3.172.749 euro— lurpean geratu ziren langileak bilatzeko guneetan egindako indusketa-lanei, 1. segurtasun-biltegia egiteko lanei eta irristatze-eremuak egonkortzeko lanei dagokie.

Zenbateko hori apirilaren amaierara arte Ingurumen Sailak egindako kontratazioek eragin dituzten 9 miloi euroko gastuei gehitu behar zaie. Diru hori Verter Recycling enpresak ordaindu beharko du, Zaldibarko zabortegiko jabea eta arduraduna delako.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

BILBON BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK ALOKAIKIRUAN ERAIKITZEKO BI PARTZELA 1,7 MILIOI EUROGATIK EROSTEA

Gobernu Kontseiluak baimena eman du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, Bilbon, Bilboko Udal Etxebizitzak entitatearen jabetzako bi partzela erosteko eta, alokatzeko helburuarekin, babes ofizialeko 61 etxebizitza eraikitzeko. Operazio horrek 1,7 milioi euroko kostua izango du.

Lehen partzela Otxarkoaga auzoan dago, eta bertan eraikiko dituzte etxebizitza gehienak (45). 4.400 m² inguruko azalera du eta 1.214.471,34 eurogatik erosiko dute. Bigarrena Miribillan dago, 323 m² ditu eta 444.269,65 euroko inbertsioa egingo da. Bertan, 16 etxebizitza eraikitzea aurreikusi dute.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, Bilboko Udalak eta Bilboko Udal Etxebizitzak tokiko erakunde autonomoak iragan apirilaren 14an sinatutako hitzarmenean kokatu behar da jarduketa hori; eta Bilboko Otxarkoaga, Bilbo Zaharra eta Miribilla auzoetan babes ofizialeko eta sozialeko etxebizitzak alokairuan sustatzeko helburua du.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

BILBOKO PEÑASKAL AUZOAN ETXEBIZITZA SOZIALAK ERAIKITZEKO ETA HIRI-BERRONERATZEA EGITEKO PROTOKOLOA ONARTU DA

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak onartu du, etxebizitza publikoak sustatuz Peñaskal auzoa berroneratzeko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak eta Bilboko Udalak adostutako jarduketaren protokoloa. Protokoloan jasota daude Bilboko eremu horretan hiri-berrikuntzako operazio erraldoiaren fase honetan bi administrazioek eman behar dituzten urratsak. Hau da, bizigarritasuneko eta irisgarritasuneko gutxieneko baldintzak ez dituzten etxebizitzak eraitsi eta bizitegi-bloke berriak eraikiko dituzte, gaur egun etxe haietan bizi diren familiei beste bizileku bat emateko.

2013an Eusko Jaurlaritzak eta Udalak Bilboko Mendebaldeko auzo narriatu batzuetako etxebizitza-parkea berritzeko izenpetutako hitzarmenean kokatzen da fase berri hori. Hitzarmen hori garatuz jada jarduketa garrantzitsu batzuk egin dituzte Gardeazabal eta Iturrigorri auzoetan. Bertan, hutsik dauden etxeak eraistea, hutsik geratutako lurra urbanizatzea eta 85 etxebizitza sozialeko bloke bat eraikitzea baino ez da falta, euren etxeak utzi zituzten familia batzuei eta Peñaskaleko operazioko lehen familiei beste bizileku bat emateko.

Peñaskal auzoa beste bien esparru berean dago eta arazo berberak ditu. Protokoloan proposatzen duten hirigintza-jarduketak auzoan hiri-antolakuntza berri bat egitea eskatzen du. Bertan sartuta egongo dira antolamenduz kanpo dauden edo bizigarritasun-, irisgarritasun- eta osasungarritasun-baldintza eskasak dituzten etxeak desjabetzeko prozesua gauzatzea, etxe horiek eraistea eta bertan bizi direnei beste bizileku bat ematea; horretarako, etxebizitza publikoko eraikin berriak egingo dituzte.

Operazio konplexua eta oso garrantzitsua da. Izan ere, datozen urteetan, Peñaskalen 76 eraikin inguru eraitsiko dituzte, 229 familiari beste bizileku bat emango diete, eta auzoaren beheko gunean hainbat bloketan banatutako 140 etxebizitza sozial berri inguru eraikiko dituzte.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 192,22 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU IKASTETXE PUBLIKOETAKO JANTOKI ZERBITZURAKO

- **Kontratazio-prozedura berriak loteen kopurua handituko du, 18 lotetik 30era, eta hobekuntza garrantzitsuak dakartza nutrizioaren eta ingurumenaren ikuspegitik**

Gobernu Kontseiluak gaurko bilera onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 192.200.770,52 euro bideratzea kudeaketa zuzeneko jantokiak dituzten Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publikoetarako bazkariak prestatu, lehengaiak eskuratu, hauek garraiatu eta jantokien funtzionamendurako zerbitzu osagarriak kontratatzeko.

Gobernu Kontseiluak gastu hori onartu ondoren, Hezkuntza Sailak jantoki-zerbitzua kontratatzeko lizitazioa abiatuko du.

Hezkuntza Sailak kontratazio-prozedura honetarako prestatu dituen klausulen pleguek berritasun ugari eta garrantzitsuak dituzte, horietako asko nutrizioa eta ingurumen kontuekin zerikusia dutenak.

Alde batetik, eta enpresa txiki eta ertainek kontratazio publikoan parte har dezaten sustatzeko, kontratazio-prozedura berrian lote kopurua handitu da, 18 lote izatetik 30 izatera. Kontratazio-lote horiek bi taldetan bereizten dira, ikastetxeek dituzten instalazioen arabera: sukaldea ikastetxean duten loteak (*in situ* loteak, 14) eta garraiatutako janaria duten loteak (16 lote).

Elikadura osasungarria

Nutrizioaren ikuspegitik, gainera, pleguek Euskadiko Elikadura Osasungarrirako Planaren baitan baturiko proposamenak proposamenak jasotzen dituzte. Menuen diseinuan eta prestaketan islatuko diren neurri esanguratsuenen artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Fruta gehiago: astean 4 egunean, 3 egunean izan behar
- Barazki eta lekaleak ugartzea, bai eta barazki-goarnizioak ere
- Pasteurizatutako haragi-deribatuak ezabatzea
- Zuntza gehitzea: ogi integrala, gutxienez astean behin
- Gatza gutxitzea: platerrei gehitutako gatza %20an gutxitzeko helburua bi ikasturtetan zehar
-

Bestalde, ingurumenaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik ere, plegu berriek berrikuntzak islatzen dituzte. Ildo horretan, enpresa esleipendunek aurkeztu beharreko ingurumen-kudeaketako ohiko planez gain (hondakinak kudeatzeko planak, edo ura, energia zein ontzien erabilera murrizteko planak), baldintza-

agiritan irizpide berri bat jasotzen da enpresek aurkeztutako eskaintzak baloratzeko, *ingurumeni dagokionez hobeak* diren elikagaien kontzeptuarekin lotuta. Elikagai horien artean, honako hauek bereizten dira:

- Ingurumen-eragina eta bizi-zikloaren kostua minimizatzeko tokiko jasangarritasuneko elikagaiak
- Ekoizpen ekologikoko elikagaiak: EBren erregelamenduaren arabera ziurtagiria izan beharko dute
- Ekoizpen integratuko elikagaiak: indarrean dagoen araudiaren arabera ziurtagiria egiaztatuz.
- Animalien ongizateko/arrantza jasangarriko irizpideak betetzen dituzten elikagaiak: ziurtagiriak egiaztatuz

Kalitateari lotutako irizpide horiek pisu handiagoa hartzen dute eskaintzak baloratzeko, eta esleia daitekeen puntuazioaren % 60raino iristen dira. Prezioaren irizpidea % 40ra murrizten da.

94.000 menu egunean

Gaur egun, Hezkuntza Sailaren kudeaketa zuzeneko 515 jantoki daude Euskadin, eta egunero 94.000 menu inguru zerbitzatzen dira horietan, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen artean. Jantoki horiek menu eta dieta mota hauek eskaintzen dituzte: menu basala; arrautza-esneki-barazkien menua; arrautza-esneki-barazki eta arrain menua; txerrikirik gabeko menua; eta nutrizio-premia berezietarako dietak (intolerantziak, alergiak dieta bidezko tratamendu espezifikoa daukaten patologietarako dietak ; espezialistaren txosten mediko ofizialarekin).

Kontratu horien iraupena 20 hilabetekoa izango da (uztaila eta abuztua kontuan hartu gabe), eta luzatzeko aukera izango da.

Hezkuntza

650.000 EURO LANBIDE HEZIKETAN ERASMUS+ MUGIKORTASUN PROGRAMAK LAGUNTZEKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du Lanbide Heziketaren eremuan ikaskuntzarako mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko dirulaguntzak deitzen dituen agindua, Erasmus+ programaren barruan.

650.000 euroko zenbatekoa duen Agindu honen helburua da, Erasmus+ programaren 2020ko deialdian ikaskuntza arrazoiengatik pertsonak mugitzeko onartutako mugikortasun-proiektuak kofinantzatzeko dirulaguntzak ematea, betiere mugikortasun-proiektu horiek 2020-2021 ikasturtean gauzatzen badira. Mugikortasun horien azken hartzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan matrikulatutako edo titulaturako ikasleak (Erdi Mailako zein Goi Mailako zikloetakoak) edo euskal Lanbide Heziketako irakasleak izan daitezke.

Europako Batasunak mugikortasun jarduera horiek finantzatzeko egiten duen ekarpen ekonomikoa ez da nahikoa izaten jarduera horiek gauzatu ahal izateko, beraz ezinbesteko gertatzen da deialdi hauek egitea Europako finantziazioak hartzen ez duen portzentajea osatzeko. Deialdi honen bidez ematen diren dirulaguntzak egonaldi-gastuetarako bideratzen dira, batez ere.

1.454 ikasle eta 290 irakasle

2019-2020 ikasturtean Euskadiko Lanbide Heziketak 1.454 ikasle izan dira orotara, bai ikastetxe publikoetakoek bai itunpekoek, Erasmus+ mugikortasun proiektuetan parte hartzeko laguntza hauen onuradun, iazko deialdien bidez. Irakasleak berriz, 290 izan dira.

Deialdi honek laguntzen dituen ikasleen zein irakasleen mugikortasun-ekintzek honako helburu hauek sustatzen dituzte:

- Parte-hartzaileei laguntzea ezagutza, trebetasunak eta gaitasunak bereganatzen, haien garapen pertsonala bultzatze aldera.
- Lanbide Heziketako ikasleei atzerrian prestakuntza jasotzeko aukerak ugaritzea.
- Ikasleei beharrezko dituzten trebetasunak ematea, hezkuntza eta prestakuntza-arlotik lan-merkatura igaro daitezen.
- Hezkuntzaren eta Lanbide Heziketaren esparruetan ohitura berritzaileak garatzen laguntzea eta horien transferentzia lortzea bertan zein herrialde parte-hartzaileen artean.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK ONIRITZIA EMAN DIO EITB TALDEA OSATZEN DUTEN SOZIETATEEN INTEGRAZIOARI

- **Egungo sozietateak (ETB S.A. , Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca S.A., Gasteiz Irratia-Radio Vitoria S.A. eta Eitbnet S.A.) sozietate bakar bat izatera pasako dira, EITB Media S.A.U izenpean**
- **Bategite honek ez die eragingo ikus-entzunezko taldearen marka komertzialei eta eskaintzari; alegia, kate eta emisora guztiak mantenduko dira**

Eusko Jaurlaritzak bere gaurko Gobernu Kontseiluan onartu du egun EITB Taldea osatzen duten sozietate guztiak (Euskal Telebista-Televisión Vasca S.A., Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca SA, Gasteiz Irratia-Radio Vitoria SA eta Eitbnet SA) sozietate merkantil bakar batean integratzea ahalbidetuko duen dekretua. Sozietate berriak EITB Media S.A.U izena hartuko du. Bategite honek ez die eragingo ikus-entzunezko taldearen marka komertzialei eta eskaintzari; alegia, kate eta emisora guztiak mantenduko dira.

Gaur egun, EITB Taldea Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca erakundeak eta aipatutako sozietate publikoek osatzen dute. Erakunde publikoa lau sozietateen kapital sozialaren % 100 ordezkatzen duten akzioen titular bakarra eta zuzena da, EITB sortzeko Legearen 38. artikulua araberak.

Integrazioaren helburua da EITBren modernizazio eta eraldaketa digitalerantz aurrera egitea antolaketa-eredu integratu eta eraginkorrago baten bidez, EITB Taldearen 2017-2020 Ildo Estrategikoen dokumentuan jasotakoa betez. Bertan, Taldeak aurreikusi zuen 2017-2020 aldian hastea sozietate-integrazioko prozesua, baliabide publikoak modu efizienteagoan eta eraginkorragoan kudeatzen laguntzeko. Gobernu Kontseiluaren akordio hau beharrezko izapidea zen EITBk azken urtean lantzen aritu den operazio hau gauzatu ahal izateko.

Integrazioak ez die eragingo taldearen marka komertzialei, ez eta ikus-entzunezko eskaintzari: taldearen telebista kateek eta irrati guztiek beren emisioa, eta eitb.eus-ek bere eskaintza, bere horretan mantenduko dute. Hau da, bategiteak ez du ETBren telebista-kateen, Radio Euskadiren, Euskadi Irratiaren, Radio Vitoriaren, Gaztearen, EITB Irratiaren eta eitb.eus atariaren desagertzea ekarriko, eta euren ikus-entzunezko jardueran ez da aldaketarik izango.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 350.000 EUROKO DEIALDIA ONARTU DU LIBURUTEGI PUBLIKOETAN TEKNOLOGIA BERRIEN EZARPENA EDO GARAPENA BULTZATZEKO

- **laz 104 toki-erakundek diru-laguntza motaren bat jaso zuten laguntza-lerro honen bidez**

Eusko Jaurlaritzak 350.000 euroko partida onartu du, bere gaurko Gobernu Kontseiluan, liburutegi publikoetan teknologia berriak ezartzen edo garatzen laguntzeko. Deialdi horri esker, urtero ehun udalek baino gehiagok beren liburutegi-zerbitzuak hobetu ditzakete.

Deialdi hau liburutegi publikoen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalei zuzenduta dago, bai eta udal-liburutegi publikoen arloan eskumena duten toki-erakundeei ere, baldin eta liburutegiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen barruan badaude. Diru-laguntza lerro honen helburua da sare honetako liburutegiek dituzten tresnak modernizatzea. laz 104 toki-erakundek jaso zituzten diru-laguntzak deialdi honen bidez, 39.000 (Bilbo) eta 114 euro (Larraul) bitartekoak.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Liburutegi Zerbitzuak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea sortu zuen 2004an, Euskadiko liburutegi publiko guztiak biltzeko eta zerbitzuak hobetzeko sinergiak sortzeko. Sare hau udal titulartasuneko liburutegiek osatzen dute nagusiki, nahiz eta zerbitzu honetan udalarenak ez diren liburutegiak ere sartzen diren (Eusko Jaurlaritza, Euskadiko Artxibo Historikoa, habe, Lazkaoko Beneritarren Artxiboa, Zarauzko Photomuseuma, Arabako Foru Aldundiaren menpeko liburutegiak...).

Gaur egun, sare horrek Euskal Autonomia Erkidegoko 300 liburutegi publiko baino gehiago biltzen ditu. Teknologia berriak ezartzeko edo garatzeko laguntza horiez gain, Eusko Jaurlaritzak beste diru-laguntza deialdi batzuk ditu udal liburutegientzat, liburuak erosteko edo irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak antolatzeko.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 200.000 EUROKO PARTIDA ONARTU DU, KULTURAREN ARLOAN PUBLIKOAK SORTU, FIDELIZATU ETA AREAGOTZEKO

- **laz, publiko berriak sortzeko 13 ekimen babestu ziren laguntza-deialdi honen bidez**

Eusko Jaurlaritzak 200.000 euroko partida onartu du bere gaurko bileran, kultur publiko berriak sortzeko deialdia abian jartzeko. Laguntza-lerro honen helburua da publiko kulturala sortu, fidelizatu eta areagotzeko ekimenak bultzatzea.

Laguntza-lerro honek kultur politikak urrats bat harago eramán nahi ditu, kultur kontsumoaren esparruan ere arreta jarriz eta publikoak sortzea, fidelizatzea eta areagotzea bultzatuz. Helburua da kultur sorkuntzaren eta publikoaren artean dauden oztopoak gainditzeko lan egitea.

Horretarako, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak kultur publikoak sortu, fidelizatu eta zabaltzeko orduan bide eraginkor berriak proposatzen dituzten eragileen ekimenak babestuko ditu. laz, Gobernu Kontseiluan aurkeztu zen 19/22 Kultura Planak euskal kulturaren ikusgarritasuna handitzeko beharra jaso du, eta publiko berrien sorreran arreta finkatzeko beharra azpimarratu du. Hala, planaren arabera, Euskadin sortutako kulturarekiko interesa, ezagutza eta aitortza areagotzea Eusko Jaurlaritzaren kultur politiken gakoetako bat da –are gehiago euskaraz sortutakoaren kasuan–. Ondoioz, Eusko Jaurlaritzaren Plan honek azpimarratzen du beharrezkoa dela publiko berriak erakartzeko eta fidelizatzekeo estrategiak sartzea sektoreko elkarte profesional guztien jardueretan.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAK COVID-19ak ERAGINDAKO EGOERARI AURRE EGITEKO MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZAK ARGITARATU DITU

Sonia Pérez Ezquerria Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak gaur aurkeztu ditu Gobernu Kontseiluan Covid-19ak eragindako egoerari aurre egiteko Merkataritzako Bulego Teknikoei zuzendutako laguntzak. Laguntzetara **1.809.000 euro** bideratuko dira eta bulegoen funtzionamendu-gastuak ordaintzeko izango dira.

Laguntzek sailaren helburu nagusietako bati erantzuten diote: txikizkako merkataritza garatu, eraginkor eta lehiakorra, merkataritza-formatu anitzekoa, kontsumitzaileen premiei egokitua, lurralde-banaketa eta -irisgarritasunean orekatua eta hiri-kohesioan lagundu eta enplegu profesionalizatua irimotzeko modukoa bultzatzea. Hori lortzeko, elkarri lotutako hainbat helburu ezartzen ditu, eta horietan biltzen dira merkataritza-sektorearen lehiakortasuna eta produktibitatea sustatzeko diseinatutako eta horretara bideratutako programak, beharrezko baldintza izanik, bestalde, garapen iraunkorrerako, aldi berean zerbitzuaren kalitatea areagotuta eta kontsumitzaileak gogobeteta gera daitezten lortuta.

Berrikuntza moduan, eta pandemiaren eraginez, merkataritza-sektorean kalteak ahalik eta gehien arindu ahal izateko, aldatu egin behar izan da laguntzak arautzen dituen agindua, hain zuzen ere, Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendua ahalbidetzeko. Horrela, laguntzan irizpide bat sartu da, puntuazioa lortzeko, helburu bakarra izanik Covid-19ak eragindako egoeraren ondorio ekonomikoak arintzera bideratutako ekintzak edo estrategiak sustatzea.

Lana eta Justizia

GOBERNUAK 1.000.000 EURO BIDERATU DITU BESTE LAGUNTZA-LERRO BATERA, COVID-19AREN KRISIAREN ERAGINPEAN DAUDEN GIZARTE-EKONOMIAKO ENPRESA TXIKIEI ZUZENDUTA

Gobernu Kontseiluak María Jesús San José Lan eta Justiziako Sailburuaren Agindua onetsi du; haren bidez, Covid-19aren ondoriozko krisiaren eraginpean dauden Euskadiko gizarte-ekonomiako enpresa txikiak (lan-sozietateak eta lan elkartuko kooperatibak) diruz laguntzeko aparteko beste laguntza-lerro bat deitzen eta arautzen da.

Diruz lagundu daitezkeen kostuak:

- a) Norberaren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzako erregimen berezian, langile bazkideek norberaren konturako langile gisa kotizatzeke ordainketaren inguruko kuotak.
- b) Negoziorako lokalaren errentamendu-gastuak.

Zenbatekoa, guztira: 1.000.000 euro

Lan-sozietate edo -kooperatiba bakoitzak, gehienez, 4.000 euroko laguntza jasoko du (kuotak: 3.000 euro / alokairua: 1.000 euro)

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA LOS DECRETOS DE LAS TRES ÚLTIMAS TRANSFERENCIAS ACORDADAS CON EL GOBIERNO ESPAÑOL

- Son las ayudas previas a la jubilación ordinaria a personas afectadas por ERE, la ejecución de la legislación sobre los productos farmacéuticos y las prestaciones sanitarias del seguro escolar acordadas en la *Comisión Mixta de Transferencias* del pasado 25 de junio
- Los decretos entrarán en vigor mañana, miércoles 16 de julio, tras publicarse en el BOPV y en el BOE

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, los tres decretos que recogen las tres últimas transferencias traspasadas a Euskadi y contempladas en el Estatuto de Gernika: ayudas previas a la jubilación ordinaria a personas trabajadoras afectadas por expedientes de despido colectivo, ejecución de la legislación sobre los productos farmacéuticos y las prestaciones sanitarias del seguro escolar. Estas tres transferencias se acordaron en la [Comisión Mixta de Transferencias](#) celebrada por videoconferencia el pasado 25 de junio. Según el acuerdo alcanzado entre el Gobierno Vasco y el español estos tres traspasos están valorados en 7,5 millones de euros de los que Euskadi se descontará del Cupo, anualmente, el 6,24%.

Los decretos entrarán en vigor mañana, miércoles, tras publicarlos el Boletín Oficial del País Vasco. Los tres decretos se publicarán mañana también en el BOE tras aprobarlos, hoy, el Consejo de Ministros.

AYUDAS PREVIAS A LA JUBILACIÓN POR ERE

El acuerdo traspasa a Euskadi las funciones y servicios para **la gestión de las ayudas previas a la jubilación ordinaria a personas trabajadoras afectadas por expedientes de despido colectivo**. Son ayudas a quienes queden afectados por ERE: procesos colectivos de extinción de las relaciones laborales fundadas en causas económicas, técnicas, organizativas y de producción derivados de los procedimientos de expediente de despido colectivo asumidos por la Comunidad Autónoma de Euskadi. Su objetivo es facilitar una cobertura económica a trabajadores y trabajadoras cercanos a la edad de jubilación para atender situaciones de urgencia y necesidad socio-laboral, de forma que se puedan paliar las consecuencias sociales derivadas de los procesos de reestructuración de empresas que pudieran conllevar el cese total o parcial de la actividad de las mismas o contribuyan al mantenimiento del empleo (*Real Decreto 3/2014, de 10 de enero, por el que se establecen las normas especiales para la concesión de ayudas previas a la jubilación ordinaria en el sistema de la Seguridad Social a trabajadores afectados por procesos de reestructuración de empresas*).

A partir de ahora, Euskadi gestionará estas ayudas y coordinará los datos con el Gobierno español a efectos de conocimiento y estadística. Ambos gobiernos han valorado esta transferencia en 4.451.051,97 € de los cuales Euskadi descontará anualmente del Cupo el 6,24%.

SEGURO ESCOLAR

